



Mancomunidad
Comarca de Pamplona
Iruñerriko
Mankomunitatea

Servicios de la
Comarca de Pamplona s.a.
Iruñerriko
Zerbitzuak e.a.

ZERBITZUEKIKO GOGOBETETASUNAREN GAINEKO AZTERLANA 2019

**URAREN ZIKLO INTEGRALA
ETXEKO HONDAKINEN BILKETA ETA TRATAMENDUA
IRUÑERRIKO IBAI PARKEA**

Emaitzen Sintesia
Etxebizitzen Azterlana
Negozioen eta enpresen
azterlana



Mancomunidad
Comarca de Pamplona
Iruñerriko
Mankomunitatea

Servicios de la
Comarca de Pamplona s.a.
Iruñerriko
Zerbitzuak e.a.

Gral. Chinchilla nº 7 Tel: 948 423 100
31002 Fax: 948 423 230
PAMPLONA-IRUÑA C.I.F.: A 31 11844 1
mcp@mcp.es www.mcp.es

ZERBITZUEKIKO GOGOBETETASUNAREN GAINEKO AZTERLANA:

URAREN ZIKLO INTEGRALA
ETXEKO HONDAKINEN BILKETA ETA TRATAMENDUA
IRUÑERRIKO IBAI PARKEA

ETXEBIZITZEN AZTERLANA
NEGOZIOEN ETA ENPRESEN AZTERLANA

2019

EMAITZEN TXOSTENA
Komunikazio Saila

AURKIBIDEA

EMAITZEN SINTESIA

0. AZTERLANAREN EZAUGARRIAK	3
1. URAREN ZIKLO INTEGRALA	10
1.1. Hornitutako uraren kalitatea	10
1.2. Hornidura-zerbitzuaren balorazioa	11
1.3. Uraren kalitatearekiko eta zerbitzuarekiko gogobetetasun globala	12
2. ETXEKO HONDAKINEN BILKETA ETA TRATAMENDUA	13
2.1. Hondakinak bereizteko ohitura	13
2.2. Edukiontzietako/Buzoietako bilketen balorazioa	14
2.3. Edukiontzietako/Buzoietako bilketa hobetzeko jarduketa-esparruak	20
2.4. Beste bilketa batzuk eta garbiguneak	22
2.5. Hondakinak tratatu eta birziklatzea	23
2.6. Hondakinaren zerbitzuarekiko gogobetetasun globala	24
3. URAREN ETA HONDAKINEN ZERBITZUEN PREZIOA	25
4. MANKOMUNITATEAREN INFORMAZIOA ETA IRUDIA	27
5. IRUÑERRIKO IBAI PARKEA	29

AZTERLANAREN EZAUGARRIAK

0. AZTERLANAREN EZAUGARRIAK

0.1. AZTERLANAREN HELBURUAK

Azterlan honen helburua da Iruñerriko Mankomunitatearen esparruko herritarrek Uraren Ziklo Integralaren (UZI), etxeko hondakinen bilketa eta tratamenduaren, eta Ibai Parkearen zerbitzuak ematen direnean dagoen kalitateari buruz duten iritzia biltzea.

Uraren Ziklo Integralean, uraren ezaugarri organoleptikoei eta higieniko-sanitarioei eta hornidura-eta saneamendu-zerbitzuen funtzionamenduari buruzko pertzepzioa bildu da.

Etxeko hondakinen kudeaketan, jatorrian hondakinak bereiztean adierazitako parte-hartzea eta Iruñerrian ezarrita dauden bilketa-mota desberdinen gaineko balorazioa bildu da, bai eta behin bilduta hondakinek jasotzen duten tratamenduari eta lortzen ari garen birziklatze-emitzei buruzko iritzia ere.

Iruñerriko Ibai Parkeari dagokion atalean, bertan maiz ibiltzen diren pertsonen ezaugarriak eta, haien erabilera-esperientziaren arabera, parkearen alderdi desberdinak nola baloratzen dituzten aztertu da.

Era berean, zerbitzu horien **prezioari** buruzko iritzia eta **Mankomunitatearen funtzionamenduaren informazioari eta irudiari** dagozkion beste alderdi batzuk bildu dira.

Eduki horien gaineko iritzia bildu da bai etxebizitzaren arloan eta bai negozioen eta enpresen arloan ere, betiere Mankomunitatearen kudeaketa-eremuaren barnean kokatutakoena.

0.2. METODOLOGIA

Telefono bidezko bi inkesta bereizi egin dira.

INKESTA ETXEBIZITZEI

Mankomunitatearen barnean dauden udalerrietan bizi diren herritarren lagin adierazgarri bati egindako inkesta da. **Haien iritzia jasotzen du zerbitzu horien erabiltzaile gisa etxebizitzaren esparruan.**

Etxebizitzaren esparruan, laginak 1.000 elkarrizketa ditu, telefonoz egindakoak. 800 elkarrizketa proportzionalki banatzen dira biztanleriaren pisura udalerrien arabera eta Iruñean barrutien arabera. Gainerako 200ekin lagina gainkargatzen da, ordezkagarritasun nahikoa lortzeko intereseko zenbait eremutan: Iruñerriaren landa-eremuan, 30 elkarrizketa gehigarri egin dira, bertako biztanleriaren pisuari dagokion elkarrizketa-kopurua bikoizteko xedearekin; Iruñeko Alde Zaharrean, bilketa pneumatikoa duen aldean, 70 elkarrizketa gehigarri egin dira, inguru horretan 100 elkarrizketa egitera iristeraino; edukiontzia irekitzeko txartel magnetikoen sistema ezarri den eremu pilotuetan, 100 elkarrizketa egin dira, ordezkagarritasun handiagoa lortzeko hondakinen

zerbitzuari buruzko balorazioan, sistema hori alde guztietara hedatzeko aurreikuspena aintzat hartuta.

INKESTA NEGOZIOEI ETA ENPRESEI

UZIren eta hondakinen zerbitzuei buruzko iritzia jasotzen du, merkataritzaren eta enpresaren alorrean. Telefonoz egin den elkarrizketa bat da, SCPSAren Bezeroen Datu Basean dauden negozioen eta enpresen lagin adierazgarri bati egina. Lagina diseinatzeko, negozioak sailkatu dira, hondakinetan abonatuena erabilera-jardueraren arabera. Bost erabilera-jarduera bereizi dira; zerbitzu hauen kalitatea hautematean esanguratsuentzat jotzen diren bostak, hain zuzen:

- Ostalaritza (tabernak, jatetxeak).
- Jan-edanen saltokiak.
- Jan-edanek ez diren beste saltoki batzuk.
- Bulegoak.
- Beste enpresa batzuk. Hiriguneetan edo herriguneetan dauden enpresak, lantegiak, inprimategiak, arotzeriak eta fabrikatze-prozesuak dituzten beste negozio batzuk. Kanpoan gelditu dira industrialdeetan edo merkataritza-zentroetan dauden enpresak.

Guztira, 660 elkarrizketa egin zaizkie negozioen eta enpresen arduradunei, gutxienez, 120 elkarrizketa erabilera-jarduera bakoitzeko. Lagina osatzeko, beste 50 gehiago egin dira Iruñeko Alde Zaharrean, bilketa pneumatikoari dagozkion emaitzak lagin-tamaina nahikoarekin aztertzeko helburuz. Halaber, 10 elkarrizketa gehigarri egin dira txartel bidez irekitzen diren edukiontzien sistema pilotua duten eremuetako saltokietan.

KALITATE-EZAUGARRIAK, UZI-REN ETA HONDAKINEN ZERBITZUAREN KUDEAKETAN

Inkesta hauetan biltzen diren iritzi-alderdien zati handi bat “ERABILTZAILEEN ETA GIZARTEAREN BEHARREN ETA ITXAROPENEN AZTERLANA, UZI-REN ETA HONDAKINEN BILKETA ETA TRATAMENDUAREN ZERBITZUEI DAGOKIENEZ” izenekoan zehaztu zen, 2004an egindakoan. Azterlan horretan, **etxebizitzaren arloko erabiltzaileekin eztabaida-taldeen** teknikarekin alde batetik eta **negozioen eta enpresen arduradunekin** bestetik, zerbitzu horietako kalitate-ezaugarri nabarmenenak zehaztu ziren, arlo horietako bakoitzaren ikuspegitik.

Uraren Ziklo Integralean, zerbitzu honen kalitatea eratzten duten eta balorazioa egiteko eskatu diren ezaugarriak hauek dira:

- ✓ Uraren kalitate orokorra.
- ✓ Ezaugarri organoleptikoak (usaina, zaporea, kolorea).
- ✓ Ezaugarri higieniko-sanitarioak.
- ✓ Jarraitutasuna izatea horniduran, etenik gabe.
- ✓ Aurretiaz abisu ematea, horniduran etenaldiak egin behar badira.
- ✓ Erantzuna, matxuren eta arazoaren aurrean.
- ✓ Hondakin-uren tratamendua.

Uraren Ziklo Integralean, neguko hiru hornidura-iturrien eremuen arabera bereizten dira emaitzak: Arteta, Eugi eta nahastua.

Etxebizitzetako hondakinen bilketan, erabiltzaileentzako lehenetasunak hauek dira, garrantzi handiena duenetik txikiena duenera ordenatuta:

- ✓ Ataritik/establezimendutik edukiontzien gunera dagoen distantzia.
- ✓ Hondakinak edukiontzi egokian bota ahal izatea, ez dagoelako beteta. Bilketa pneumatikoan, honek ordeztu du: buzoi egokian bota ahal izatea, ez dagoelako buxatuta.
- ✓ Hondakinak edukiontzi-mota desberdinetan bota ahal izateko erraztasuna. Edukiontziaren edo ahoaren diseinuarengatik berarengatik botatzeko erosotasunari egiten dio erreferentzia.
- ✓ Edukiontzien garbitasuna.
- ✓ Edukiontzi-mota bakoitzean bota daitezkeen hondakinen gaineko informazioa.
- ✓ Zaratak biltzean (etxebizitzaren arloan baino ez da neurtzen).
- ✓ Estetika edo edukiontziak integratzea hiri-paisaian.
- ✓ Edukiontzien kale-plazetan hartzen duten tokia.

Negozioetan eta enpresetan, bilketa-zerbitzuaren kalitatea eratzten duten ezaugarriak bat datoz etxebizitzaren arlokoekin, bi kasu hauetan izan ezik: ia ez diote garrantzirik ematen biltzean zarata egiteari eta garrantzi handiagoa ematen diote edukiontzien garbitasunari.

Hondakinen kudeaketan, tamaina handikoen biltzari eta garbiguneei buruzko iritzia ere aztertzen da, bai eta behin bilduta hondakinei egiten zaien tratamenduari eta Iruñean eta eskualdean lortzen ari diren birziklatze-eraketari buruzkoa ere.

Etxebizitzetako inkestan, elkarrizketa egindako pertsonen ezaugarri demografikoak biltzen dira, eta bai etxebizitzaren tamaina eta osaera ere, zerbitzu horien balorazioan desberdintasun esanguratsuak ikusten diren zehaztu ahal izateko.

EMAITZEN BILAKAERA

Etxebizitzaren esparruan, inkesta hauek 1995az geroztik egiten dira. 2013a arte, urtero egin ziren, eta 2013 eta 2019 artean, bi urtean behin. 2004an, zerbitzu horien kalitatea eratzten duten ezaugarriak berrikusi egin ziren, zerbitzuen erabiltzaileekin eztabaida-taldeak egitearen teknikaren bidez, eta azterlan horren emaitza moduan herritarrei iritzia eskatzen zaien adierazle baten bidez. Negozioen eta enpresen inkesta, aldiz, 2004an egin zen aurreneko aldiz, eta geroztik bi urtean behin egiten da. Horrek ahalbidetzen digu emaitza nagusiek denboran duten bilakaerari jarraipena egitea.

Azterlanaren planteamendua, laginaren diseinua, aldagaien definizioa eta galdetegiak egitea, datuen analisia eta ustiapena, eta emaitzen txostena SCPSAren beraren baliabideekin egin da. SPSS v.25 estatistika-paketea erabili da. Landa-lana, telefono bidezko elkarrizketak CATI teknologiarekin egin eta grabatzea, kanpoko enprekin kontratatzen da, lehiaketa publiko irekiaren bidez. 2019an, etxebizitzetako inkesta QUOR enpresari esleitu zaio, eta negozio eta enpresetako inkesta, IKERFEL enpresari.

0.3. FITXA TEKNIKOAK

ETXEBIZITZETAKO INKESTAREN FITXA TEKNIKOAK

INFORMAZIOA BILTZEKO TEKNIKA	Telefono-elkarrizketa, galdetegi egituratu baten bidez egina.
UNIBERTSOA	18 urtetik gorako pertsonak eta Iruñerriko Mankomunitateak uraren eta hondakinen zerbitzuak ematen dituen udalerrietan bizi direnak. Biztanleak, guztira: 294.658, 18 urtetik gorakoak.
LAGINAREN ESTATISTIKA- ESPARRUA	Udal-erolden informazioa, Estatistika Institutu Nazionalak egindakoa, biztanle-kopuruari eta errolda-ataletan sexuaren eta adinaren arabera ezaugarritzeari dagokienez. 2018ko errolda.
LAGINKETA EGITEKO PROZEDURA	Ausazko laginketa geruzatua. Lagina proportzionalki banatzen da udalerrri desberdinen pisuari, 1.000 biztanletik gora badituzte. Iruñean (166.086 biztanle 18 urtetik gorakoak) lagina biztanleriaren pisuari proportzionala da barrutien arabera. Mankomunitatea eratzen duten gainerako udalerrietan (128.572 biztanle 18 urtetik gorakoak) Iruñerri hiritarra edo Iruñerri landatarra den bereizten da: Iruñerri hiritarra (110.766 bizt.) 1.000 biztanletik gorako biztanleria-entitateek eratuta dago, eta lagina biztanleriaren pisuari proportzionala da. Iruñerri landatarra (17.806 bizt.) 1.000 biztanletik beherako biztanleria-entitateek eratuta dago. Entitate horiek bi gunetan multzokatzen dira: Iruñerri landatarra arroa (10.196 bizt.) Aranguren, Berriobeiti, Biurrun, Olkutz, Egues, Galar, Elortz, Oltza, Tiebas, Muru Artederreta, Zabaltza herriak, Adios, Añorbe, Beraskoain, Bidaurreta, Ziritza, Etxarri, Eneritz, Legarda, Muruzabal, Tirapu, Ukar eta Uterga udalerrriak. Iruñerri landatarra iparraldea (7.610 bizt.) Esteribar, Ezkabarte, Itza, Txulapain eta Ollo herriak.
LAGINAREN TAMAINA	1.000 elkarrizketa: 800 elkarrizketa proportzionalki banatzen dira biztanleriaren pisuaren arabera. Gainerako 200ekin lagina gainkargatu da, gutxiegi ordezkaturik gelditzen diren gunetan: Iruñerriko landa-eremua: 30 elkarrizketa gehigarri. Alde Zaharra, bilketa pneumatikoa duten inguruak: 70 elkarrizketa 100era iritsi arte. Edukiontzia txartel bidez irekitzen diren sistema duten eremu pilotuak (Azpilagaña auzoaren zati bat eta Artika Berria, Berriobeiti. 7.100 pertsona daude erroldatuta bi eremu horietan): 100 elkarrizketa. Emaita globaletarako, dagozkien haztapan-koefizienteak aplikatzen dira, eta haiekin, emaitzen agregazio-eraginetarako, berdindu egiten dira laginketa-frakzioak biztanlerian duten pisuaren arabera egokituko litzaizkiekeen elkarrizketen proportzioarekin.
ANALISI- UNITATEEN HAUTAKETA	Elkarrizketa egin beharreko etxebizitzak ausaz hautatzeko metodoa, datu-base telefonikoetatik abiatuta. Hautatutako zenbaki bakoitzeko 5 saiakera egiten dira, egun eta ordu desberdinetan. Elkarrizketa egin beharreko pertsonaren hautaketa sexuaren eta adinaren kuota gurutzatuen bidez.
LAGIN-ERROREA	Lagin osorako errore-marjina \pm %3,2koa da, %95,5eko konfiantza-mailarako eta P=Q.
LANDA-LANAREN DATA	Inkestak 2019ko maiatzeko bigarren hamabostaldian egin dira.
BISITA INSTALAZIOETARA	Instalazio hauek bisitatzen dituzten pertsonen 142 galdetegi bildu dira: Arteta (47), Urtasun (6), Arazuriko HUA (36) eta Gongora (53).

NEGOZIO ETA ENPRESETAKO INKESTAREN FITXA TEKNIKOA

IKERKETA-METODOA	Kuantitatiboa.
INFORMAZIO-BILKETA	Telefono-elkarrizketa, galdetegi egituratu baten bidez egina establezimenduaren arduradunari.
UNIBERTSOA	Merkataritza- eta industria-erabilerak dituzten abonatuak, industrialdeetan eta merkataritza-zentroetan kokatuta daudenak izan ezik. Guztira, 8.456 establezimendu.
LAGINAREN ESTADISTIKA-ESPARRUA	Bezeroen aplikazio informatikoko datu-basea. Bertan ageri dira uraren eta hondakinen zerbitzuetan abonatuta dauden guztiak.
LAGINKETA EGITEKO PROZEDURA	<p>Bost erabilera-jarduera bereizi dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ostalaritza. • Jan-edanen saltokiak. • Jan-edanenak ez diren beste saltoki batzuk. • Bulegoak. • Hiriguneetan edo herriguneetan dauden beste enpresa batzuk. <p>Gutxienez 120 elkarrizketa egin dira erabilera-jarduera bakoitzeko, jarduera bakoitzaren gutxieneko ordezkagarritasuna lortzeko. Erabilera-jardueretako bakoitzean, lau kuota ezarri dira hondakinen urteko zenbatekoaren pertzentilen arabera (25, 50, 75), eta 30 elkarrizketa egin dira kuotetako bakoitzean. Hartara, 600 elkarrizketa egin dira.</p> <p>2011z geroztik, lagina 50 elkarrizketa gehiagorekin kargatzen da Iruñeko Alde Zaharrean, bilketa pneumatikoari dagozkion emaitzak zehaztasun handiagoarekin aztertzeko. 2019an, lagina 10 elkarrizketa gehigarriekin kargatu da, edukiontzia txartel bidez irekitzeko sistema duten gunen pilotuetan.</p> <p>Emaitza globaletarako, dagozkien haztapan-koefizienteak aplikatzen dira, eta haiekin, emaitzen agregazio-eraginetarako, berdindu egiten dira laginketa-frakzioak erabilera-jardueretako bakoitzean abonatuak negozioren benetako proportzioarekin.</p>
ANALISI-UNITATEEN HAUTAKETA	Bezeroen datu-baseko erregistroak ordenatu dira erabilera-jardueraren eta dagokien kuoten arabera, hondakinen urteko zenbatekoaren eta negozioa edo enpresa kokatuta dagoen udalerraren arabera. Elkarrizketa egin beharreko negozioa hautatzea ausazko abiatzearekin eta jauzi sistematikoekin egin da, kuotetako bakoitza osatu arte.
LAGINAREN TAMAINA	660 elkarrizketa.
LAGIN-ERROREA	$\pm 4\%$ (P=Q) %95,5eko konfiantza-maila.
LANDA-LANAREN DATA	2019ko maiatzeko bigarren hamabostaldian eta ekaineko lehenean egin dira.

EMAITZEN SINTEZIA

1. URAREN ZIKLO INTEGRALA

1.1. HORNITUTAKO URAREN KALITATEA

Iruñeko eta Iruñerriko herritar gehien-gehienek (%94) iturriko ura edaten dute eskuarki, eta hornitutako uraren kalitate orokorraren gainean duten pertzepzioa oso handia da: etxebizitzan inkestatutako pertsonen %91k eta saltokietan eta enpresetan inkestatutako en %92k uste dute edaten duten ura ona edo oso ona dela.

Mankomunitateko uraren ezaugarri organoleptiko eta higieniko-sanitarioei buruzko azterlan zehatzagoan, zaporean, usainean, kolorean eta baldintza higieniko-sanitarioetan hautemandako kalitate handia nabarmentzen da, bai etxebizitzan arloan, bai eta negozioen eta enpresen arloan ere, aztertutako alderdi guztietan balorazio uniformearekin lotuta.


Uraren kare-mailari dagokion balorazioa, ordea, okerragoa da; izan ere, herritarren %14k uste baitute txarra edo oso txarra dela alderdi horretatik, eta %29k hala-holakoa dela. Uraren kare-mailak balorazio kaskarragoa du Artetatik datorren hornidura-inguruan, inguru horretan elkarrizketa egindako pertsonen %21ek uste baitute txarra dela, %32k hala-holakoa eta %42k ona edo oso ona.

Negozioen eta enpresen arloan kritikoagoak dira alderdi honekin, %16k balorazio txarra edo oso txarra eman diote uraren kare-mailari, %36k hala-holakoa eta %38k ona edo oso ona.

Zer balorazio ematen diozu uraren kalitate orokorrari? Zehatzago, nola baloratzen duzu hauei dagokienez? (%)

■ Oso ona/Ona ■ Hala-holakoa
■ Txarra/Oso txarra ■ ED/EDE

BATEZBES-
TEKOA
Eskala
(1-5)



1.2. HORNIDURA-ZERBITZUAREN BALORAZIOA

Hornidura-zerbitzuari dagozkion alderdiek ere oso balorazio onak izan dituzte. Etxebizitzetan inkestatutako pertsonen %98k ontzat edo oso ontzat jotzen dute zerbitzuaren funtzionamendu orokorra eta horniduraren jarraitutasuna, etenik gabea izatea. %77ren ustez, zerbitzua ongi edo oso ongi egokitzen da herritarren premia eta eskarietara, %1ek uste dute hala-hola egokitzen dela eta inkesta egindako inork ez du uste gaizki egokitzen dela. Negozioen eta enpresen artean, balorazio horiek era berean dira aldekoak.

Etenaldia egin behar izanez gero aurretiaz abisatzeari eta matxuren aurrean ematen den erantzunari dagozkien alderdietan, aztertutakoetan, portzentaje handi batek ez ditu baloratu, horretarako irizpiderik ez duelako. Bi alderdi horiek baloratu dituztenek, berriz, ez dute erantzun kritikorik eman ia.


Etxebizitzeten %14k eta enpresen eta negozioen %11k gogora ekarri dute inkesta egin aurreko 6 hilabeteetan **ur-horniduran etenaldiren bat izan dutela.** Etxebizitzeten %72k eta saltokien eta enpresen %67k uste dute aurretik eman zitzaizela abisua, nahiko denborarekin. Etxebizitzeten arloan %22k eta negozioen eta enpresen arloan %15ek egozten diote etenaldia zerbitzuan izandako matxura bati, eta gainerakoek bideko lanei edo etxebizitzaren batean izandako matxurei egozten diete.

Etxebizitzeten esparruan inkestatutako pertsonen, horniduran etenaldiren bat izan dutenek, ongi baloratu dute etenaldia izanez gero aurretiaz abisua emateari dagokion alderdia: %90ek ongi baloratu dute eta %6k hala-hola. Gorabehera hori izan duten negozioak eta enpresak kritikoagoak dira etenaldia izanez gero aurretiaz abisua emateari dagokion alderdia baloratzean: %77k ongi baloratu dute, %8k hala-hola eta %9k gaizki edo oso gaizki.

Baloratu hornidura-zerbitzuaren alderdi hauek (%)

■ Oso ongi/Ongi ■ Hala-hola
■ Gaizki/Oso gaizki ■ ED/EDE

BATEZBES-TEKOA
Eskala
(1-5)



1.3. URAREN KALITATEAREKIKO ETA ZERBITZUAREKIKO GOGOBEETASUN GLOBALA

Alderdi guztiak beren osotasunean hartuta kontuan, uraren kalitatearekiko eta zerbitzuarekiko gogobetetasun-mailari 8,2 puntu eman dizkiote, 0 eta 10 arteko eskala batean. Ehunekoetan, elkarriketa egindako pertsonen %93k beren gogobetetasun globalari 7ko puntuazioa edo handiagoa eman diote, %5ek 5 edo 6koa, eta %1 baino ez dira agertu gogobete gabe.


Hornidura-eremuen arabera ikusten diren diferentziak (Arteta, Eugi eta nahasketa) ez dira esanguratsuak estatistikako terminoei dagokienez. Era berean, etxebizitzetan inkestatutako pertsonen ezaugarri soziodemografikoen arabera gogobetetasun globalean ere ez da desberdintasunik ikusten.

Uraren kalitatearekiko eta zerbitzuarekiko gogobetetasun globalaren mailaren bilakaeran, etxebizitzetan esparruan elkarriketa egindako herritarren artean, goranzko joera ikusten da azken neurketetan, 2017an eta 2019an lortuta segida historikoko balio handienak.

Negozioren eta enpresen artean, gogobetetasun globalari 8,2 puntu eman dizkiote 10etik. Elkarriketa egindako negozioen eta enpresen %90ek zerbitzuarekiko gogobetetasun-mailari 7tik gorako puntuazioa jarri diote, %7k 5 edo 6koa, eta %1 baino ez dira izan 5etik beherakoa jarri diotenak. Saltokien eta enpresen erabilera-jardueraren arabera ikusten diren diferentziak ez dira esanguratsuak estatistikako terminoei dagokienez.

Negozioren eta enpresen gogobetetasun globalaren mailaren bilakaera jasotzen duen segida historikoan gorabeherak ikusten dira, eta hobekuntza progresiboa nabarmendu behar da azken neurketetan, 2019an balio handiena lortu arte.

Alderdi guztiak bere osotasunean hartuta, zein da uraren kalitatearekiko eta zerbitzuarekiko **gogobetetasun-maila**?




2. ETXEKO HONDAKINEN BILKETA ETA TRATAMENDUA

2.1. HONDAKINAK BEREIZTEKO OHITURA

Hondakinen bilketa-zerbitzuan hautemandako kalitatea aztertu aurretik, galdetu da etxean, edo establezimenduan (negozioei eta enpresei egindako inkestan), hondakin-mota desberdinak bereizten dituzten dagokien edukiontzia arabera.

Hondakinak bereiztean eta gaika biltzean parte hartzea, adierazitakoa, oso handia da, bai etxebizitzetan esparruan, bai negozioen eta enpresen esparruan ere. Hartara, adierazi dute etxebizitzetan %85ek eta negozioen eta enpresen %82k beti bereizten dituztela hondakinak edukiontzia arabera.

Etxean, hondakinak bereizten dituzte...



OINARRIA: 1.008 elkarrizketa


Establezimenduan, hondakinak bereizten dituzte...



OINARRIA: 660 elkarrizketa

Adierazitako parte-hartze portzentajea azken neurketetan erregistratua baino pitin bat txikiagoa da.

Etxean/establezimenduan, hondakinak bereizten dituzte... (%)



2.2. EDUKIONTZIETAKO/BUZOIETAKO BILKETEN BALORAZIOA


GAINERAKOEN FRAKZIORAKO EDUKIONTZIAK

Etxebizitzaren arloan, gainerako enpresen edukiontzien oso balorazio aldekoak izan dituzte edukiontzietarako distantzian –%93k ongi baloratzen dute distantzia–, botatzeko erraztasunean (%88) eta zaborra bota ahal izatean, edukiontzia beteta ez daudelako (%88). Bota daitekeenaren gaineko informazioak eta bilketa egiten dutenean egiten diren zaratek balorazio ona jaso dute elkarriketa egindako pertsonen %82ren aldetik.

Balorazio kaskarra izan duen alderdia edukiontzien garbiketarena da: %78k ongi baloratu dute, %16k hala-hola eta %4k gaizki. Bilketa honen funtzionamenduaren gaineko balorazio orokorrak erantzun positiboaren %93 izan ditu etxebizitzetan inkesta egindako pertsonen artean.

Negozioren eta enpresen arloan, balorazioak etxebizitzaren arloan erregistratutakoak baino pitin bat baxuagoak dira. Balorazio kaskarra izan duten alderdiak garbitasunarena –%68k ongi baloratu dute alderdi hori, %19k hala-hola eta %8k gaizki– eta edukiontzira bota daitekeenaren gaineko informazioa dira –%67k ongi baloratu dute alderdi hori, %23k hala-hola eta %7k gaizki–. Bilketa honen balorazio orokorra positiboa da elkarriketa egindako negozioen eta enpresen %80ren kasuan, hala-holako %10entzat eta txarra %2rentzat.

2017ko datuen aldean, mantendu egin dira etxebizitzaren arloan erregistratutako balorazioak, eta negozio eta enpresen kasuan, kaskartu egin dira edukiontzien garbiketari eta bota daitekeenaren gaineko informazioari buruzko balorazioak.



GAI ORGANIKOETARAKO EDUKIONTZIAK

Elkarrizketa egindako pertsoneri, **janari hondarrak bereizi eta giltza duen edukiontzira eramaten dituztela adierazi zutenei**, eskatu zitzaizkien edukiontzi hori baloratzeko, aztertzen ari garen alderdietan.

Etxebizitzaren esparruan, oso balorazio ona dute, erantzun positiboen %90 baino gehiago lortuta, edukiontzietarako distantziak eta beteta ez egoteak botatzean, eta %85ek edukiontzi horietan bota daitekeenaren gaineko informazioa ongi baloratu dute. Balio altuak izan arren, balorazio kaskarra izan duen alderdia garbitasunarena izan da: %80k balorazio ona eman dute, %16k hala-holakoa eta %3k txarra. Bilketa honen balorazio orokorra positiboa da edukiontzi hau erabiltzen duten pertsonen %93ren kasuan.


Gai organikoak sortzen dituzten **negozioek eta enpresek**, dagokien edukiontzira botatzen dituztela adierazi dutenek, etxebizitzaren esparruak baino balorazio kaskarragoa ematen diete aztertutako alderdi guztiei. Balorazio kaskarra izan duten alderdiak botatzeko erraztasuna eta edukiontzien garbitasuna izan dira. Bilketa honen balorazio orokorrean, giltza duen edukiontzi marroia erabiltzen duten negozioen eta enpresen %77k balorazio positiboa eman diote, %11k hala-holakoa eta %3k txarra.

2017ko neurketako datuen aldean, edukiontzien garbitasunari eta edukiontzi honetan botatzeko erraztasunari buruzko balorazioa kaskartu da.

Organikoetarako edukiontzien balorazioa (%)

■ Oso ona/Ona ■ Hala-holakoa
■ Txarra/Oso txarra ■ ED/EDE

BATEZBES-TEKOA
Eskala (1-5)




ONTZIETARAKO EDUKIONTZIAK/BUZOIAK

Etxebizitzen esparruan, erantzun positiboen portzentaje handia eskuratu dute edukiontzira dagoen distantziak (%93), botatzean beteta ez egoteak (%82), garbitasunak (%83), bota daitekeenaren gaineko informazioak (%82) eta biltzean egiten den zaratak (%82).

Ontziak edukiontzira botatzeko erraztasuna da balorazio kaskarrean lortu duen alderdia: %77k ongi baloratu dute, %16k hala-hola eta %5ek gaizki. Nabarmendu behar da progresiboki erantzun kritikoen portzentaje txikiagoa lortzen dela alderdi hau baloratzean.

Negozioetan eta enpresetan, etxebizitzen arloarekiko, pitin bat kritikoagoak dira alderdi gehienetan, edukiontzien garbitasunean izan ezik, bi arloetan ongi baloratzen den alderdia baita. Negozioetan eta enpresetan, balorazio konparatibo txikiagoa duten alderdiak ontziak edukiontzira botatzeko erraztasuna, botatzera joatean beteta ez egotea eta edukiontzi hauetan bota behar denaren gaineko informazioa dira.

Ontzien bilketako balorazio orokorrean, etxebizitzetan elkarrizketa egindako pertsonen %91k uste dute bilketa honek ongi edo oso ongi funtzionatzen duela, %6k hala-hola eta %1ek gaizki edo oso gaizki. Negozioetan eta enpresetan, berriz, %83k balorazio ona eman diote, %9k hala-holakoa eta %1ek txarra.



PAPERA-KARTOIA BOTATZEKO EDUKIONTZIAK/BUZOIAK

Aztertutako bi arloetan, erantzun positiboen portzentaje handia eskuratu dute edukiontzira dagoen distantziak (%93), bota daitekeenaren gaineko informazioak (%85) eta garbitasunak (%85).

Balorazio kaskarra izan duen alderdia, etxebizitzan esparruan eta, bereziki, negozioen eta enpresen esparruan, edukiontzira papera eta kartoia botatzeko erraztasuna da. Negozioetan eta enpresetan, kritikoak dira, gainera, botatzera joatean edukiontzia beteta egotearen alderdiarekin.


2017ko datuen aldean, aldaketa gutxi ikusten da aztertutako alderdi gehienaren gaineko balorazioan, botatzera joatean edukiontzia beteta egotearen gaineko balorazio kaskarragoa dagoela izan ezik, negozioetan eta enpresetan.

Bilketa honi buruzko balorazio orokorrak erantzun positiboen %90 izan ditu etxebizitzan esparruan, eta %78 negozio eta enpresetan.

Papera-kartoia botatzeko edukiontzien balorazioa (%)

■ Oso ona/Ona ■ Hala-holakoa
■ Txarra/Oso txarra ■ ED/EDE

BATEZBES-
TEKOA
Eskala
(1-5)



BEIRARAKO EDUKIONTZIAK


Bilketa honek oso balorazio handiak lortu ditu **etxebizitzaren arloan**, bereziki edukiontzira dagoen distantzian (%93k era positiboan baloratu dute), beira botatzeko erraztasunean (%93), botatzean beteta ez egotean (%91) eta bota daitekeenaren gaineko informazioan (%85).

Iglu-formako edukiontzietatik biltzean egiten den zarata etxebizitzaren esparruan okerren baloratzen den alderdia da: %74k balorazio ona eman diote alderdi honi, %17k hala-holakoa eta %6k txarra.

Negozioetan eta enpresetan, beira-bilketaren balorazioa soil-soilik ostalaritzako establezimenduei eskatzen zaie. Ostalaritzako negozioak kritikoagoak dira edukiontzi honetara botatzeko erraztasunari eta beteta ez daudelako bota ahal izateari dagokienez.

Bilketa honen funtzionamenduari buruzko balorazio orokorrak erantzun positiboan %92 lortu ditu etxebizitzetan elkarriketa egindako pertsonen artean, eta %62, negozio eta enpresetan.

Etxebizitzaren esparruan, bilketa honek 2017an erregistratutakoen antzeko balorazioak lortu ditu, eta balorazio kaskarragoak lortu ditu ostalaritzako negozioetan egindako azken neurketarekiko.




ESTETIKA ETA KALE-PLAZETAN TOKIA HARTZEA

Edukiontzia hiriko paisaian integratzeari (estetika) eta kale-plazetan tokia hartzeari dagozkion alderdiak batera baloratzen dira edukiontzi mota guztietarako, edo buzoietarako, bilketa pneumatikoa bada.

Edukiontziak dituzten eremuetan, aztertutako guztien artean balorazio kaskarrenak jasotzen dituzten alderdiak dira. %62k ongi baloratzen dute edukiontzien estetika, %26k hala-hola eta %10ek gaizki. Kale-plazetan tokia hartzeari dagokionez, %68k ongi baloratzen dute, %20k hala-hola eta %11k gaizki.


Bilketa pneumatikoa duten eremuarekiko, ordea, aldeak ikusten dira. Alderdi hauek oso balorazio ona lortzen dute buzoietan, bereziki, etxebizitzaren esparruan: %93k ongi edo oso ongi baloratzen dute estetika, eta %94k, kale-plazetan tokia hartzea.

Negozioak eta enpresak oso kritikoak dira edukiontzien estetikarekin: %46k ongi baloratzen dute, %33k hala-hola eta %20k gaizki; eta edukiontzien kale-plazetan tokia hartzeari dagokionez, %53k ongi baloratzen dute alderdi hau, %23k hala-hola eta beste %23ak gaizki edo oso gaizki. Bilketa pneumatikoa duten eremuan, %72k ongi baloratzen dute buzoien estetika eta kale-plazetan tokia hartzea.




2.3. EDUKIONTZIETAKO/BUZOIETAKO BILKETA HOBETZEKO JARDUKETA-ESPARRUAK

Edukiontzia-mota bakoitzean aztertutako alderdiek jaso dituzten balorazioak konbinatuta, 1 eta 5 arteko eskala batean adierazitakoak, zerbitzuaren kalitatean erabiltzaileek alderdi horietako bakoitzari ematen dioten garrantziarekin, **bilketa-zerbitzua hobetzeko jarduketa-esparruak ezarri dira etxebizitzan arlorako**. 2019an, esparru horiek modu honetan zehaztuta gelditu dira:



Negozioen eta enpresen ikuspegitik, esparru horiek koadrante hauetan zehaztuta gelditu dira:




Gainerakoetarako eta gai organikoetarako edukiontziak txartel bidez irekitzeko sistema duten eremu pilotuetan, pitin bat okerrago baloratzen dira aztertutako alderdiak eta nabarmen kaskarragoak diren balorazioak erregistratu dira, batetik, gainerakoen eta gai organikoen edukiontzietan hondakinak botatzeko erraztasunean, eta, bestetik, botatzera joatean beteta ez gotean ontzien eta paper-kartoiaren edukiontzietan.

2.4. BESTE BILKETA BATZUK ETA GARBIGUNEAK

Etxebizitzetan esparruan inkestatutako pertsonen %82k ezagutzen dute Mankomunitateak Emausko Trapuketariekin kontratatuta duen **TAMAINA HANDIKO GAUZEN BILKETA**, eta bilketa hori ezagutzen duten pertsonen %42k eskatu dute zerbitzu hori azken bi urteetan. Bilketa horren berri duten pertsonen %63k uste dute ongi edo oso ongi funtzionatzen duela, %11k hala-hola eta %3k gaizki edo oso gaizki. %23k ez dakite edo ez dute baloratu.


Etxebizitzetan inkestatutako pertsonen %87k ezagutzen dute **GARBIGUNEETAKOREN BAT**. Ezagunena, hain zuzen, kamioi mugikorra da, herritarren %69k ezagutzen baitute. Garbiguneak ezagutzen dituzten pertsonen artean, %49k eraman dituzte hondakin bereziak kamioi mugikorrera, %22k Eroski hipermerkatuko garbigune finkora, %17k Leclerc hipermerkatukora eta %4k Burlatako garbigunera (inkesta egin aurretik inauguratu berria).

Garbiguneak ezagutzen dituzte (%)



OINARRIA: 1.008 elkarrizketa. Lagin osoa

Hondakinak eraman dituzte garbiguneetara (%)



OINARRIA: garbiguneak ezagutzen dituzte

2019an, herritarren %85ek balorazio ona eman diote garbiguneen funtzionamenduari, %3k hala-holako eta %1ek txarra. 2007an, lehen aldiz neurtu zen urtean, balorazio onen portzentajea %72koa izan zen.

Negozioetan eta enpresetan, Iruñeko Alde Zaharrean KARTOIA, BEIRA ETA GAI ORGANIKOAK BILTZEKO DAGOEN ATEZ ATEKO BILKETA aztertu da.

Iruñeko Alde Zaharrean **kartoia sortzen duten** eta elkarrizketatu diren saltokien %58k kartoia ateratzen dute Mankomunitateak kudeatzen duen bilketa horretara. Elkarrizketa egindako guztiek ongi edo oso ongi baloratzen dute bilketa hau.

Iruñeko Alde Zaharrean inkestatutako **ostalaritzako establezimenduen** %63k beira ateratzen dute atez ateko bilketan jasotzeko. %85ek ongi baloratzen dute bilketa hau eta %15ek hala-hola.

Iruñeko ingurune horretan **gai organikoak sortzen dituzten establezimenduen** %43k ezagutzen dute Mankomunitateak gai organikoak atez ate biltzeko eskaintzen duen zerbitzua eta %36k hondakin horiek biltzeko ontzia dute. Bilketa honetara atxikitako establezimenduen %71k ongi baloratzen dute, %6k hala-hola eta beste %18ak gaizki.


2.5. HONDAKINAK TRATATU ETA BIRZIKLATZEA

Behin bilduta hondakinei egiten zaien tratamendua dela-eta, bai etxebizitzaren esparruan eta bai negozioen eta enpresen esparruan ere, ez dakiten edo galdera honi erantzun ez dioten inkestatutako pertsonen portzentaje handia nabarmendu behar da.

Iruñerriko Mankomunitatearen esparruan lortzen ari garen birziklatze-emaitei buruz duten iritziaz zehazki galdetuta, **etxebizitzaren esparruan** inkestatutako pertsonen %54k uste dute emaitza horiek onak edo oso onak direla, %7k hala-holakoak eta %1ek txarrak edo oso txarrak. %38k ez dakite nola baloratu birziklatzearen emaitzak.

Negozioetan eta enpresetan, %31k ez dakite zer erantzun birziklatzearen emaitzen gainean, %54k uste dute onak edo oso onak direla, %13k hala-holakoak eta %2k txarrak edo oso txarrak.

Zure iritziz, Iruñean eta Iruñerrian birziklatzearen gainean lortzen diren emaitzak dira...



2.6. HONDAKINEN ZERBITZUAREKIKO GOGOBESETASUN GLOBALA

Alderdi guztiak beren osotasunean hartuta kontuan, hondakinen bilketa- eta tratamendu-zerbitzuarekiko gogobetetasun-mailari 7,8 puntu eman dizkiote 10etik ETXEBIZITZEN ESPARRUAN. Hori ehunekoetara ekarrita, elkarrizketa egindako pertsonen %84k 7koa edo handiagoa jarri diote zerbitzuarekiko gogobetetasun globalari, %10ek 5 edo 6koa, eta %1 baino ez dira izan asegabe agertu direnak.


Azterlanean aintzat hartutako bilketa-eremuen arabera, bilketa pneumatikoko buzoiak dituzten gunean zerbitzuarekiko gogobetetasun globalaren maila 8,0ra iristen da. Edukiontzia arruntak dituzten guneetan, gogobetetasun globalaren maila 7,9koa da, eta txartel bidez irekitzen diren edukiontzia dauzkaten eremu pilotuetan 7,0ra jaisten da maila hori.

NEGOZIOEN ETA ENPRESEN ESPARRUAN, hondakinen zerbitzuarekiko gogobetetasun globalari 7,4 puntu eman dizkiote 10etik. %78k 7koa edo handiagoa jarri diote gogobetetasun globalari, %15ek 5 edo 6koa, eta %6k 5etik beherakoa.

Elkarrizketa egindako saltokien eta negozioen erabilera-jardueraren arabera ikusten diren diferentzietan ez dute esangura estatistikorik. Bilketa-eremuen arabera, bilketa pneumatikoko buzoiak dituzten gunean zerbitzuarekiko gogobetetasun globalaren maila 7,8koa da. Edukiontzia arruntak dituzten guneetan, gogobetetasun globalaren maila 7,4koa da, eta txartel bidez irekitzen diren edukiontzia dauzkaten eremu pilotuetan 7,0koa da maila hori.

Ettxeko hondakinen bilketa eta tratamenduarekiko **gogobetetasun globalaren mailaren bilakaera** jasotzen duen segida historikoan joera jarraitua ikusten da azken neurketetan, dela etxebizitzetako arloan, dela negozioen eta enpresen arloan.

Alderdi guztiak aintzat hartuta, zein da zure **gogobetetasun-maila** hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzuarekiko?




3. URAREN ETA HONDAKINEN ZERBITZUEN PREZIOA

Etxebizitzan esparruan, inkestatutako pertsonen %52k uste dute ur-zerbitzuak prezio normala edo merkea duela, eta %29k uste dute garestia dela. %19k ez dakite edo ez dute iritzirik eman zerbitzu honen prezioaren gainean.

Hondakinen prezioaren gaineko pertzepzioa antzekoa da: %50en ustez hondakinak bildu eta tratatzeko prezioa normala edo merkea da, eta %30ek, aldiz, garestia dela uste dute. %20k ez dakite nola baloratu zerbitzu honen prezioa.

Uraren zerbitzuaren prezioa garesti izatearen pertzepzioa emakumeek dute, 65 urtetik gora dituztenek eta lehen mailako ikasketak dituztenek. Ikusten da hondakinen zerbitzuaren prezioa garestia den pertzepzioa emakumeek, elkarrizketa egindako 30 eta 45 urte artekoek, eta lehen eta erdi mailako ikasketak dituztenek daukatela. Zerbitzu horien prezioa garestiagoa dela uste dute 5 kideetik gorako etxeak dituzten arduradunek.

Nola baloratzen duzu ur-zerbitzuaren prezioa? eta hondakinena? (%)




Negozioetan eta enpresetan, elkarrizketa egindako establezimenduen %60k uste dute **uraren zerbitzuak** prezio normala edo merkea duela, eta heren bati garestia dela iruditzen zaie. Negozioren erabilera-jardueraren arabera, uraren prezioa garestia den pertzepzioa ostalaritzako establezimenduek dute: %42k garestizat jotzen dute, saltoki eta negozioetako %33ko batezbestekoaren aurrean.

Enpresak eta negozioak kritikoagoak dira **hondakinen zerbitzuaren prezioarekin**. Elkarrizketa egindako negozioen eta enpresen %52k uste dute zerbitzu hau garestia dela. Saltokiak kritikoagoak dira prezioarekin: jan-edanek saltokien %57k eta jan-edanek ez diren saltokien %62k uste dute hondakinen zerbitzua garestia dela.


Uraren zerbitzuaren prezioaren bilakaeran, prezioaren pertzepzio garestiagoa ikusten da 2011n, 2013an eta 2015ean, bai etxebizitzien arloan eta bai negozioien eta enpresen arloan ere. 2017an eta 2019an jaitsi egin da uraren prezioa garestia dela uste dutenen ehunekoa, krisi ekonomikoaren aurretiko ehunekoetara itzulita, beraz.

Nola baloratzen duzu **uraren zerbitzuaren prezioa?** (%)



Hondakinen zerbitzuaren prezioaren segida historikoan ere pertzepzio garestiagoa ikusten da 2011n eta 2013an, eta goranzko joera hori 2015ean amaitu zen, nabarmen gutxitu baitzen zerbitzu hori garestia zela uste zutenen portzentajea, bereziki negozioetan eta enpresetan. 2017an erregistratutako en antzeko balioak ikusten dira 2019an.

Nola baloratzen duzu **hondakinen zerbitzua?** (%)



4. MANKOMUNITATEAREN INFORMAZIOA ETA IRUDIA


Etxebizitzen esparruan inkestatutako pertsonen %32k gogoan dute Iruñerriko Mankomunitatearen informazio edo komunikazioaren bat jaso edo ikusi dutela azken urtean. %8k adierazi dute urarekin lotutako informazioa jaso edo ikusi dutela; %18k hondakinekin lotutakoa; %20k hiriko garraioarekin lotutakoa; eta %4k taxiekin lotutakoa.

Jasotzen duten informazioaren gainean balorazio ona ematen dute inkestatutakoen %47k, hala-holakoa %13k eta txarra %3k. %37k adierazi dute ez dutela informaziorik ikusi edo jaso edo ez dute baloratu.

Negozioren eta enpresen kasuan, %44k gogoan dute Mankomunitatearen informazio edo komunikazioaren bat jaso edo ikusi dutela azken urtean. %15ek urarekin lotutako informazioa jaso edo ikusi dute; %32k hondakinekin lotutakoa; %21ek hiriko garraioarekin lotutakoa; eta %6k taxiekin lotutakoa.

Mankomunitateaz jasotzen duten informazioaren gaineko balorazio ona ematen dute inkestatutako negozioen eta enpresen %50ek, hala-holakoa %27k eta txarra %9k.

Oro har, nola baloratzen duzu Mankomunitateko erabiltzaile moduan **jasotzen duzun informazioa**?



OINARRIA: 1.008 elkarrizketa
BATEZBESTEKOA: eskala (1-5)


OINARRIA: 660 elkarrizketa
BATEZBESTEKOA: eskala (1-5)

IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEAREN IRUDIA dela-eta, etxebizitzan esparruan inkesta egindako pertsonen %79k irudi ona dute Mankomunitatearen funtzionamenduaz, %15ek ez ona eta ez txarra, eta %2k txarra.

Negozioetan eta enpresetan, %65ek irudi ona dute, %26k ez ona eta ez txarra, eta %5ek txarra.


Oro har, Mankomunitatearen funtzionamenduaz duzun **irudia** da...

Etxebizitzak (%)



OINARRIA: 1.008 elkarrizketa
BATEZBESTEKOAK: eskala (1-5)


Negozioak/Enpresak (%)



OINARRIA: 660 elkarrizketa
BATEZBESTEKOAK: eskala (1-5)

Segida historikoan, Mankomunitatearen funtzionamenduaren gaineko irudia kaskartu egin da negozioen eta enpresen arloan, aurreko neurketak aintzat hartuta.

Oro har, Mankomunitatearen funtzionamenduaz duzun **irudia** da... (%)




5. IRUÑERRIKO IBAI PARKEA

2019an, Iruñeko eta Iruñerriko herritarren %80k ezagutzen dute edo ezaguna egiten zaie Ibai Parkea eta %55 izan dira beran: %21 maiz joaten dira (astero edo ia astero), %14 urtean zenbaitetan joaten dira eta %19 noizbait joan dira.

Ezagutzen duzu edo ezaguna egiten zaizu Iruñerriko Ibai Parkea? Arga ibaiaren ondotik doan parkea da (%)



Erabiltzen al dituzu Ibai Parkeko ibilbideak edo aisiarako eremuak? (%)




OINARRIA: 1.008 elkarrizketa. Lagin osoa

Azkeneko neurketekin alderatuta, gutxitu egin da Ibai Parkera joaten direnen kopurua, bai sarritan joaten direnena eta bai noizean behin joaten direnena, eta, hortaz, handitu egin da inoiz joan ez direnen eta ezagutzen ez dutenen kopurua.

Erabiltzen al dituzu Ibai Parkeko ibilbideak edo aisiarako eremuak? (%)

- Ez dut ezagutzen
- Ez naiz inoiz joan
- Noizbait joan naiz
- Urtean zenbaitetan
- Sarritan




Ibai Parkearen erabiltzaileen profil demografikoan, gizonen proportzio handiagoa ikusten da –%39 sarritan edo urtean zenbaitetan joaten dira, eta emakumeen kasuan %32 dira–, 30 eta 65 urte arteko herritarrak –%39 sarritan edo urtean zenbaitetan joaten dira–, unibertsitate-mailako ikasketak dituzte (%43) eta haur txikiak dauzkate (%45).

Nabarmendu behar da **gutxiago ezagutzen eta erabiltzen dutela** Ibai Parkea 18 eta 29 urte arteko gazteek (adin-talde horretan inkesta egindakoen %43k ez dute ezagutzen Parkea) eta Iruñean edo Iruñerrian bizitzen 10 urte baino gutxiago daramaten inkestatuek –ia erdiek ez dute ezagutzen–, bereziki beste herrialde batzuetakoak badira (%49k ez dute Parkea ezagutzen).

Ibai Parketik gertu dauden tokietan bizi diren herritarrek neurri handiagoan erabiltzen dute, bereziki, Txantrean, Arrotxapean, Sanduzelain eta Buztintxurin bizi direnek. Haietan inkestatutako herenak sarritan joaten dira Parkera eta beste %14 urtean zenbaitetan. Ibai Parkearen eremuan sartuta dauden eskualdeko udalerrietan, inkestatutako %39 urtean zenbaitetan edo sarritan joaten dira.

Inkesta egin duten eta Ibai Parkera joaten diren pertsonen %62 batez ere Iruñeko zatietara joaten dira maiz eta %38 Iruñerriko zatietara joaten dira.

Gehienetan joaten zaren zatiak hemen daude... (%)



OINARRIA: 550 elkarrizketa. Ibai Parkera joaten dira (358 Iruñeko zatietara; 192 Iruñerriko zatietara)

Ibai Parkea erabiltzeko ohiturei dagokienez, Iruñerriko zatietan ibiltzen diren pertsonen artean, gehien-gehienak (%85) paseatzera joaten dira Parkera, %32 bizikletaz ibiltzera, %16 familiarekin edo neska-mutikoekin itzuli bat egitera eta %9 korrika ibili edo kirola egitera. Parkeko erabiltzaileen %38 asteburuetan joaten dira, %11 asteaz joaten dira, eta %51 era berean asteaz eta asteburuetan.

Oro har, eta dena hartuta aintzat, **Iruñerriko zatietan ibiltzen diren parkeko erabiltzaileek 8,0 puntu ematen dizkiote beren gogobetetasunari 10etik.**

Iruñerriko zatietan, balorazio onena duten alderdiak Parkera sartzeko erraztasuna (8,4), garbitasuna eta mantentzea (7,9), eta segurtasuna dira, bandalismorik, lapurreratik... ez egoteari dagokionez (7,9). Balorazio kaskarrena jaso duena, aldiz, Parkeari buruzko informazio orokorra da (jarduerei, ibilbideari, iristeko moduari eta abarri buruzkoa), 7,2ko balioa izan baitu.

Jarri 0 eta 10 arteko balorazioa sarrien joaten zaren zatiko edo eremuko alderdi hauei

	Iruñeko zati-tara joaten dira	Iruñerriko zati-tara joaten dira	Parkeko erabiltzaileak, guztira
Parkera sartzeko erraztasuna, erraza da iristea	8,4	8,4	8,4
Parkearen garbitasuna eta mantentzea	7,8	7,9	7,9
Altzariak eta hornidurak egotea (bankuak, paperontziak, iturriak, komunak, askaltegiak, haurrentzako parkeak...)	7,5	7,5	7,5
Altzarien eta horniduren kontserbatze-egoera	7,5	7,5	7,5
Ibilbideen, eremuen eta zerbitzuen seinaleak	7,5	7,6	7,6
Segurtasuna, bandalismoa/lapurretak eta abar ez egoteari dagokionez	7,8	7,9	7,8
Segurtasuna, paseatzeko, jolasteko eta abarretarako arriskurik gabeko tokia izateari dagokionez	7,7	7,7	7,7
Jarduera desberdinak egiteko Parkeak eskaintzen dituen aukerak	7,9	7,8	7,8
Parkeari buruzko informazio orokorra (jarduerak, ibilbideak, nola joan...)	7,3	7,2	7,3
Oro har eta dena kontuan hartuta, Ibai Parkeko erabiltzaile gisa zein da zure gogobetetasun-maila?	7,9	8,0	7,9

Segida historikoari erreparatzen bazaio, nabarmendu behar da azken neurketetan Iruñerriko eremuak eta zatiak bisitatzen dituzten pertsonen artean erregistratutako **gogobetetasun-maila handia** dela.

Zein da zure **gogobetetasun-maila** Ibai Parkeko ohiko edo noizean behingo erabiltzaile moduan?

■ Iruñeko zati-tara joaten da
■ Iruñerriko zati-tara joaten da

